

KANALAK

BANAKETA:

Proiektua aplikazio batean zentratzen denez, banaketa digitaleko plataformak erabiliko ditugu gure kontsumitzaileengana irits dadin. Aplikazioa App Storen eta Google Storen eskuragarri egongo da.

KOMUNIKAZIOA:

Gure kontsumitzaileekin komunikatzeko Tiktok, Instagram eta Twitter bezalako sare sozialak erabiliko ditugu.

Tik tok: Gure aplikazioaren bidez eskaintzen ditugun establezimenduetan maiz ibili den jendeari elkarrizketak egingo dizkiogu. Haien esperientzia ezagutarazteko eta haiengan interesa duten beste emakume batzuk erakartzeko. Bakarrik bidaiatzeari buruzko elkarrizketak egiteaz gain, baita: zein izan da zure esperientziarik txarrena bakarrik bidaiatzen?, zer da bakarrik bidaiatzeari beldur handiena ematen dizuna?, bakarrik bidaiatzea gustatzen zaizu?,...

Instagram: Gure aplikazioan eskaintzen ditugun establezimenduen argazkiak argitaratzea.

Twitter: Aplikazioan atera diren azken eguneraketen eta akatsen berri ematea.

Gainera, bidaiatzen duten emakume gazteak diren influencer-ak erabiliko ditugu gure aplikazioa ezagutarazteko, ordainduko diegu gure app-a sustatzeko eta horiek beren bideoetako batean iragarriko gaituzte, eta app-a nolakoa den kontatuko du. Gure aplikazioan agertzen diren establezimenduek identifikazio-pegatina bat izango dute gure aplikazioaren logotipoarekin, eta horrek gure aplikazioa ikusaraziko eta iragarriko du. Gainera, argitalpen espezifikoetan ere ezagutaraziko dugu geure burua. Honako hauek izan daitezke: egunkariak, aldizkariak, bidaiatzeko nitxoan aritzen diren web-orriak edo berezikiemakumeei zuzenduta daudenak. Aplikazioan, kontsumitzaileek gure app-ari eta establezimenduei buruzko iritziak partekatzeko aukera izango dute, Horrela, gure zerbitzuak hobetu ahal izango ditugu, eta kontsumitzaileek beste emakume batzuen esperientzia ezagutu ahal izango dute.